

Izarbeibarrean Euskara Zerbitzua eratzeko proposamena

Agrupación Electoral Puentestina/Garestarren Bilgunea
Gares, 2008ko maiatzak 20

Sarrera

Garesko Euskara Zerbitzua 1991n sortu zen. Urte hauek gorabeheratsuak izan dira: hasieran egun osoko dedikazioa zuen, teknikaririk gabeko boladak gertatu dira... baina orokorrean funtzionamendua positiboa izan dela esan daiteke, Garesko egoera soziolinguistikoa hobetu baita (Hezkuntzan, gazteen ezagutzan, aldeko jarreretan) Hori bai ezin da ukatu hobetu beharreko alderdiak daudela: erabilera, udal administrazioerikiko harremanean... Eta hobetu beharrekoen artean inguruko herrietara zerbitzuaren eskaintza zabaltzea garrantzitsuenetakoa da.

Egungo egoera

Garesko Udalak 1998an Nafarroako Gobernua eta toki entitate zenbaiten arteko lankidetzaren hitzarmena, euskararen sustapenerako, sinatu zuen. Hitzarmena 22 toki entitatek sinatu zuten eta hauek dira lortu nahi diren helburuak:

- ◆ Euskararen erabilpena eta euskal kultura sustatzea udaletako gizarte bizitzan
- ◆ Euskara teknikariak kontratatzea
- ◆ Langileen euskalduntzea
- ◆ Toki administrazioen jarduketan indarrean dagoen hizkuntza araudiari egokitzea
- ◆ Udalen jabetzako euskal komunikabeak diruz laguntzea
- ◆ Euskararen normalizazioari buruz azterlanak proposatu eta egitea

Egun Udak Euskara Zerbitzua Garesko Udalaren egituraren dago eta euskara teknikari bat aritzen da % 59 lan kontratuarekin.

Azken bi urteetan hitzarmenaren bidez dirulaguntza hauek jaso dira

	2007	2008
Urteko plangintza	2.544,00	3.052,80
Teknikariaren kontratazioa	4.971,00	5.070,42

Euskararen Ordenantza

Garesen ez dago euskararen ordenantza eta aurten onartzeko prozedura martxan jarri beharko litzateke. Ordenantzaren bidez nagusiki atal hauek garatzen dira:

- Sarrera, bertan lortu nahi diren helburuak zehazten dira
- Ordenantzen aplikazio esparrua: udalerrria
- Administrazioen arteko harremanak
- Herritarren eskubideak
- Udalaren kanpo irudia: errotulazioa, agiriak, papereria, publizitatea, argitalpenak
- Udal langileak eta Udalaren barne funtzionamendua: hizkuntza eskakizunak, merezimendua, formakuntza...
- Euskararen sustapena antolatzea: udalerrian euskararen aldeko sentsibilizazioa areagotzeko programak, kultur ekitaldiak, euskararen erabilera bultzatzeko programak.
- Euskara Batzordearen funtzionamendua, Batzordea finkatua dagoen udaletan.

Kanpainak

Garesko Udalak gainerako euskara zerbitzuekin kanpaina hauetan parte hartu du:

- Helduak euskaraz ikasteko kanpainak
- Udaletxean ere euskaraz kanpaina.
- Transmisio kanpaina.
- Euskarazko produktuen katalogoa.
- Etxepare Literatur Saria.
- Ze Berri aldizkaria.

Aukera gehiago martxan jartzen ari dira, oso interesgarriak direnak: Mintzakide...

Euskara teknikaria

a) Funtzioak:

- Udalaren edo toki entitatearen urteko plangintzaren diseinua egin eta proposatzea indarrean dagoen arautegia kontuan hartuz. Plangintzaren ardatz nagusiak hauek dira:
 - o Euskararen egoeraren diagnosia herrian: ezagutza, erabilera, motibazioa, sektoreen diagnosia.
 - o Herritarren eskubideak bermatzeko Administrazioaren funtzionamenduan aplikatu behar diren nuerrien proposamena egitea eta haien aplikazioa antolatzea.
 - o Herriko gizarte bizitzan eragitea euskararen aldeko sentsibilizazioa bultzatzeko eta euskararen erabilera sustatzeko.
 - o Langileen euskarazko formakuntza kudeatzea
- Udalak onartu duen plangintzaren kudeaketa teknikoa
- Udalak behar dituen itzulpenak egitea, horrela dagokionean

Etorkizunari begira

Euskara Zerbitzuaren lana hobetzeko eta eragin esparrua antolatzeko aukera aztertzea proposatzen da. Egun Garesko udalaren menpe dago eta argi dago eskualdean eragina izan dezakeela eta baduela. Esaterako Eskualdeko Ikastetxera inguruko herrietako ikasleak etortzen dira eta antolatzen diren hainbat gauzatan parte hartzen dute. Zenbait kasutan garestarren prezio berean eta maiz garestiago. Egoera hori moldatu behar dela iruditzen zaigu eta aukera bat da inguruko udalei lankidetzaren proposatzea. Hauek dira bururatzen zaizkigun aukerak:

a) Orain arte bezala jarraitzea.

b) Zonaldean dagoen Mankomunitateren batean integratzea (Izarbibar-Arga Mankomunitatea, Oinarrizko Zerbitzuen Mankomunitatea, berriren bat sortzea...)

c) Ados egon daitezkeen udalekin lankidetzaren hitzarmenak sinatzea. Emaitza xumeagoa izango litzateke, baina askotan urrats txikiak ematearekin konformatu behar da.

Diru sarrerak-finantza bideak

Kosto ekonomikoa gutxienez hiru atal hauetarako izango litzateke: teknikariaren kontratua finantzatzeko, urteko plangintza eta kanpainak antolatzeke eta langileen euskarazko formakuntza eskaintzeko eta diru iturri nagusiak hauek dira:

- Nafarroako Gobernuaren laguntzak (aurtengo dirulaguntzen deialdian euskara zerbitzuak sortzeko edota handitzeko diru partida berezia dago)
- Udalak
- Parteideak

Helburua: herritarrek euskara ezagutzeko eta erabiltzeko duten eskubidea babestea Administrazioarekiko harremanetan, batipat toki entitateekiko harremanetan.

Helburu zehatzak

- Toki entitateen funtzionamendua planifikatzea euskaraz eskaintzen den harremana handitzeko.
- Udalerrian euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzea.
- Euskararekiko aldeko jarrerak sustatzea

Giza baliabideak: Euskara teknikaria
Garesko Udalak aurrekontuaren % 59 bere gain hartuko luke eta gainerako % 41 beste udalek ordainduko lukete. Bakoitzari eskainitako dedikazioa portzentai horien arabera litzateke. Ekitaldiekin irizpide bera

Gastuak	Urte osoa	Garesko Udala	Beste herriak
Teknikaria	35.000 euro	21.000 euro	14.000 euro
Kultur jarduerak	29.000 euro	17.400 euro	11.600 euro
Guztira	64.000 euro	38.400 euro	25.600 euro

Oharra: teknikariak ogun osoko dedikazioarekin, Gizarte Segurantzaren barne

Diru sarrerak	Urte osoa	Garesko Udala	Beste herriak
Erabiltzaileak	6.600 euro	6.600 euro	?
Dirulaguntzak	12.974 euro	9.170 euro	3.804 euro
Udalak	44.426 euro	26.656	17.770 euro

Oharra: Garesko diru sarrerak kontuan hartu dira. Besteen diru sarrerak gehituko lirateke beren herrietan egin behar diren ekitaldiak antolatzeke Gares, 2008ko maiatza.